

43 ■ Memoria historikoa osatzeko



'Oroitzapenerako kantuak' diskoa argitaratu du Ahaztuak 1936-1977 elkarteak hemengo eta kanpoko musikariek.



44 ■ Espazioak eraiki, bete eta hustu

Adrian Tyler, Edward Burtynsky eta Joel Meyerowitzen argazkiekin erakusketa jarri dute Koldo Mitxelena.

Kosmosak pentsakor uzten ditueni

Zazpi saiakerak osatzen dute Txillardegiren liburu berria: 'Horretaz'; bere kezka nagusiez mintzo da

ARANTZAZU MUÑOZA
Donostia

Idazleaz, gizakiaren jatorriaz, historiaz, erlijioaz eta astronomiaz mintzo da Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi (Donostia, 1929) *Horretaz* saiakera liburu argitaratu berrian (Elkar). Zer ez den esanez aurkeztu du egileak liburu: «Ez da saiakera politikoko bat». Baina, landu dituen gaiak erreferentzia eginaz, zentzu batean bederen, politika ukitu duela gaineratu du berehala. Zazpi saiakera laburrek osatzen dute liburu.

Bi idazle hautatu ditu Txillardegi lehene bi saiakeretarako: Jean Paul Sartre eta Rosalia de Castro. Haren jaiotzaren 100. urteurrena izan berri delako aukeratu du Sartre, baina baita Euskal Herrian ezezaguna delako delako ere. Era askotako Sartre erakusten saiatu da: musikazalea, idazle konprometitua edota Nobel sariari uko egingakoa. Eta Euskal Herriarekin izandako lotura ere aztertzen du *Sartre eta Burgosko epaiketa* titulupean. «Bada garaia Sartrearen oroitzenen kale edo enparantza bat beraren izenaz bataiatzeko», dio amaieran.

Bigarren, Rosalia de Castro, «oso emakume interesantea» delako hautatu du, eta horrek Galiziarri, bere bigarren aberriari buruz



Txillardegi, *Horretaz* saiakera liburuaren aurkezpenean. MADOI SOROA / ARGAZKI PRESS

hitz egiteko aukera eman dio: «Azkeneko espainiar kolonia izan da Galizia», dio *Galizia eta Rosalia* liburuko bigarren saiakeran. Rosa-

lia de Castroren helburuak ere aipatzen ditu: bere herrialdea goratzeko eta ahaztutako bere hizkuntza aldarrikatzeko, besteak beste.

Hirugarren saiakera *Ameriketako genozidioaz* da: «Ameriketako genozidioa salatu behar dela iruditzen zait, eta V. Mendeurrenekoan jasan behar izan dugun erasoak erantzun bat merezi zuela». Amerikaren kolonizazioaz mintzo izan diren aipamenen bat edo beste egin ondoren, gogoeta bat egin du saiakera amaieran. «Nor mintzo da gaur, bide beretik, Kanarietako guantxei buruz?».

Gainontzeko saiakerek gai unitbertsalak ukitzen dituzte. Laugarrenean, oraindik ere gure artean darwinismoak merezi duen maila jaso ez duela eta, gizakiaren kondaira egitea egokia dela iruditzen zaio Txillardegi. «Nondik etorri da gizakia? Norat ari da gizadia? Zein izan diragure arbasoak?», galdera horiekin hasten du *Giza jatorriaz* saiakera. Gizakiaren bilakera aztertuta, erlijioaren gaia lantzeraz jo du hurrengo saiakeran: *Antropokeriaz*. «Saio honek erlijioaren eta antropozentrismoaren kritika gogorra izan nahi du. Richard Dawkins eta Onfrayren berri ematen dut. Ez dira gure artean ezagutzen, eta berorien obra gure artean osasungarria izan daitekeela uste dut».

Azken bi saiakeretan astronomiaz mintzo da Txillardegi. Bere iritzia azaltzeaz gain, liburu funtsezko batzuen berri ere eman du. Eta ildo horretatik bideratu du hitzaurreko eskaintza ere: «Liburu hau eskaini nahi nieke, beraz, giza arazo nahasiak beren haragi egini ere, Kosmosaren eskergatasun misterioitsuak pentsakor uzten dituen guztiei».

'HUNTAZ ETA HARTAZ' GOGOAN. *Horretaz* entzunda *Huntaz eta hartaz* etor dakioko norbait segituan burura. Huraxe izan zen Txillardegi lehene saiakera liburu. Gaurkotasuneko gaiak euskaraz azaltzea helburu hartuta hainbat gairi buruzko saiakera laburren bilduma egin zuen 1965ean. Urte hartan egin zuen bere buruaz beste Marilyn Monroek. Haren heriotzak oihartzun handia izan zuen: teoriar garapena lortu zuen emakume ederrak bere buruaz beste egin zuen. Haren inguruko gogoetak eta beste batzuk jaso zituen Txillardegi lehene saiakeran. Haiek ekarri ditu gogora *Horretaz* en hitzaurrean: «Bestelako gaiak ere ukitu nituen: Pio Baroja, idazle handia bai, baina euskarari buruz uzkur, are trufakor ere. Neokarlismoa nagusi zela euskal politikan, eta honetaz beste saiakera bat. Eta horrela mamitu zen liburu».

Xabier Mendiguren Elizegi liburuen editoreak ere *Huntaz eta hartaz* saiakera oroitu du. Liburu inportantea izan zen garai hartan. Izan ere, euskarak gauza batzuetarako bakarrik balio zuela uste zen: «Baserrirako, baina ez hirirako; ahozkorako, baina ez idatzizkorako. Jose Luisek erakutsi zuen euskara gai zela edozertaz aritzeko». Ideia horixe idatzi du Txillardegi ere hitzaurrean: «Euskararen erabilpen normala bilatzen genuen; orduan, hitz lauz batez ere, euskara ez baitzen tresna arrunta».

Huntaz eta hartaz lehene aldiz argitaratu zenetik 42 urte joan dira eta *Horretaz*-ekin osatu nahi izan du Txillardegi hirukia. Egilearen kezka eta arduren erakusgarri diren zazpi saio labor proposatu dizkio irakurleari: «Zaila izan zait zazpi gai hauek hautatzea, eta ez beste batzuk», aitortu du hitzaurrean.

Durangoko Azokara etorri ezinik geratu dira Georgiako idazle bi, bisa arazoengatik

ERREDAKZIOA
Bilbo

Euskal Idazleen Elkarteak eta Gerediagako elkarteak gonbidatuta, David Turashviliarekin batera, Nugzar Tsikaluri eta Tamar Ebralidze idazle georgiarrak ziren etortzekoak 42. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara. Haatik, Gerediagak jakinarazi duenez, bisa lortzeko traba ugari jarri dizkiete Tsikaluriri eta Ebralidzeri, eta, ondorioz, ezingo dira azokan izan. Haien ordez, David Turashviliarekin batera, David Bakradze

izango da Durangon, abenduaren 7an eta 8an. Bakradze idazle georgiarrak da eta Kultura ministroa izandakoa. Georgiako ereserkiaren hitzen egileetako bat da.

Ez da astebete falta Durangoko azoka hasteko, eta jada hasi dira mahaiak jartzen Landako gunean. Iaz baino sei erakusmahai gutxiago jarriko dituzte aurtun: 317. Hala, jende pilaketak eragotzi nahi dituzte. Argizaiola saria *Maiatz* aldizkariari emango diote, eta umorea izango da aurtengo ekitaldiko gai nagusia.



Landako gunean Euskal Liburu eta Disko 42. Azoka prestatzen hasi dira. BERRIA